

Martxoaren 3an
URTEAN ZEHARREKO 8. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizuma aurretik azkeneko igandea dugu gaur. Gaur ere bihotzaberritzeko deia egiten zaigu. Horretarako Jainkoaren Hitzari arreta jartzen diogu: barnean gozaten dugunetik eman genezake fruitu ugari. Jesus Jaunak laguntzen digu horretan.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekatuak hilik, bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzen bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko Jauna, egizu, mundu honek
 zure asmoen neurrian aurrera egin dezala;
 emaezu herri guztiei egiazko bakea,
 eta Elizari, zure zerbitzu santuan zintzoki irauteko poza.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Liburu santua kutxa eder bat da, zabaltzen dugun aldiro ikasbide ederren bat ematen diguna. Gu ere kutxa eder bat garela oroitarazten digu gaur: barrua onez bete eta kanpora barruko ona ateratzera deitua dagoen kutxa ederra, Jainkoak egindako kutxa.

Lehenengo irakurgaia (*Sir* 27, 5-8)

Siraken liburutik

Galbaia astintzean ahotza gelditzen da; hala berean gizakiaren okerrak, azterketa egitean. Labeak egiaztatzen du eltzegilearen ontziaren ona, gizakiaren balioa bere pentsaeretan da egiaztatzen. Zuhaitza nola dagoen landua, haren fruituak du erakusten; gizakiaren bihotza nolakoa den, haren hitzak azaltzen. Ez inor goretsi, zer dioen entzun gabe, hitza da eta gizakia ezagutzeko bidea.

Erantzun-salmoa (*Sal* 91, 2-3. 13-14. 15-16)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -
ti - ko - a bait da.



On da Jaunari eskerrak ematea,
eta zure izenari, Goi-goiko, eresi egitea;
goizean iragartzea zure maitasuna,
eta gauetz zure leialtasuna. R/.

«Loratuko da zintzoa palmondoa bezala,
haziko da Libango izaia bezala;
Jaunaren etxean landatua,
gure Jainkoaren atarietan loratua. R/.

Emango dute uzta zahartzaroan ere,
mardul eta gordin egongo dira.
Iragarriko dute zein zuzena den Jauna,
nire Harkaitza, Beragan gaiztakeriarik ez daukana.» R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 54-58)


San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Ustelkor hau ustelezinez jazten denean, eta hilkor hau hilezkorrez, orduan beteko da idatzirik dagoen hitza: «Garaipenak irentsi egin du heriotza.

Non da, herio, zure garaipena? Non da, herio, zure eztena?» Heriotzaren eztena bekatua da; eta bekatuaren indarra, Legea. Eskerrak Jaungoikoari, garaipena ematen digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, ene senide maiteok, iraun gogor eta sendo; egin lan gero eta gehiago Jaunarengatik, badakizue eta Jaunak ez duela saririk gabe utziko zuen nekea.

Aleluia (Flp 2, 15b-16a)



Izar argiak bezala agertzen zarete munduan,
bizitzaren zentzubidea eman ez. R/.

Ebanjelioa (*Lk 6, 39, 45*)

Homiliarako argibideak

Etsaiak maitatu... denei barkatu...

Bizitzako adibide errazak erabiltzen zituen Jesus Maisuak. Zuhaitza eta fruituak horren adibide dira. Ebanjelioan sarritan darabil Jesusek pertsonak eta gertakariak aztertzerakoan itxurari bakarrik ez begiratzearen kontua.

Bereizmena egiteko, dizernimendurako, gaitasuna izatea jakinduriaren fruitu da. Sakonera begiratzen jakin behar dugu: fruituei begiratu, ez zuhaitzaren azalari edo hostoei bakarrik. Gizakiaren fruituek ere ederki adierazten dute bere barne-bizitza. Azal hutsa denak nekez ematen ditu fruituak. Sasiak ez du pikurik ematen. Berdin pertsonak ere: ona denak bihotzean ontasuna du eta fruitu onak ematen ditu. Barrura begiratzeko diosku Jesusek. Ahoko hitz garratza ez ote da ba barru garratzaren fruitu? Hitz gozoa ez ote da bihotz maitekorren gainezkako fruitu?

Norbere buruaren erruak aldatzeko ere itxurari ez, sustraiari begiratu behar zaio: zergatik dut joera hau, zergatik jokatzen dut horrela? Zerk eragiten dit horrela portatzea?

Egunero egin behar genuke kristauok kontzientzi-azterketa leiala: eguneko jokabideak eta pentsamenduak aztertu Kristoren Bihotz zintzoaren ispiluan jarriz. Zentzuz jokatu al dut? Harrera oneko al naiz nire harremanetan? Saiatzen al naiz pertsonak eta gertakariak sakonetik begiratzen azal hutsean geratu gabe? Zerk eragiten nau gaizki jokatzera? Saiatzen al naiz errukiz, apaltasunez, bakez jokatzeko? Hitz batean: nolakoa da nire bihotzaren neurria? Zabala, denentzat toki duena?

Norbere buruaren azterketa egiten ez duenak, besteak aztertzen eta neurtzen bukatzen du. Gauza ez nirea aldatzeko eta beti besteenari begira! Zein errez mintzatzen garen besteen akatsez, bitartean gureak estaliz bezala!

Hori itxurakeria da, Jesusek farisearri hainbeste aldiz leporatzen dien itxurakeria. Besteek gutaz duten irudia ondo mantentzen saiatu baina, finean, erruki gutxirekin jokatu: itxurakeria. Zabal ditzagun begiak, saia gaitezen geu hobeak izaten... eta gure etsenpluarekin irakatsi besteei, ez hitz hutsarekin. Itsua itsu-aurreko gertatuko gara bestela; ezjakina maisu.

Besteek egiten duten ona azpimarratzen saiatzea ere ariketa ona da gure apaltasunerako: kritika geure buruari, esker ona besteekin.

Datorren astean hasiko dugun garizumarako prestaera bikaina gertatzen zaigu gaurkoa. Bete dezagun bihotza Jainkoaren errukiz, erruki hori gainezka dadin gudan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senide maiteok, Jainko Aita ahalguztidunari eta eska diezaiogun datorrela bere herriari laguntzera:

—Eska diezaiogun Jaunari, Elizaren alde: biziaraz dezala eta santu egin, gizakien ongari eta Jainkoaren aintzagarri izan dadin.

- Eska diezaiogun Jaunari munduan agintea dutenen alde: beraien ardura behartsuenen onerako eta guztion ongizaterako bete dezaten.
- Eska diezaiogun Jaunari bidean direnen alde, etxetik urruti edota arriskuan bizi direnen alde: Jainkoaren babesa senti dezaten.
- Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde: gure bekatuak barka ditzan, bere argia eman diezagun eta bere Semearen aitormen egiteko sendo gaitzan.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta egizu, Elizan jakinduria iturri eta bizi eredutzat entzuten den hitzak, lagun diezagula gure senideak ulertzen eta maitatzen, elkarren epaile ez, baizik eta onginahiaren eta bakearen zerbitzari izan gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure dohain salbagarriak harturik, Jauna,
apalik eskatzen dizugu:
orain janaritzat ematen diguzun sakramentu honek
betiko bizia irits diezagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**